

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### 323/2024 Foru Agindua, abenduaren 16koa. Arabako, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria 2025 jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketarako deialdia onartzea

Arabako jaien, San Prudentzioren eta Estibalizko Andre Mariaren ospakizunen inguruan Kultura eta Kirol Sailak sustatzen dituen jardueren artean dago horiek iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketa publiko bat deitzea.

Alde horretatik, beharrezkoa da aipatutako lehiaketaren 2025eko deialdi publikoa izapidetzen hastea.

Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren (ALHAO, 51. zk., 2022ko maiatzaren 4koa).

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2025eko Arabako, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketaren deialdia onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. Hautagaitzak aurkezteko eskatzen diren dokumentuak onestea, foru agindu honen II. eta III. eranskin gisa jasota daudenak.

Hirugarrena. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera arautzen da (oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren, eta 2022ko maiatzaren 4ko ALHAOn, 51. zenbakian, argitaratu zen), bai eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera ere.

Laugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako sariak Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko aurrekontu-proiektuaren 70105. G/334700/48000701 partidaren kontura ordainduko dira ("Arabako jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketa"), eta 3.500,00 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da guztira. Sariak emateko baldintza izango da haiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Bosgarrena. Ebazpenak gehienez ere sei hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. Saria emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie saridunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ALHAOn argitaratuko da.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123.

artikuluaren. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 16a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

*Kultura zuzendaria*  
MARÍA INMACULADA SANCHEZ ARBE

## I. ERANSKINA

### 2025EKO SAN PRUDENTZIOREN ETA ESTIBALIZKO ANDRA MARIAREN OMENEZKO ARABAKO JAIK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETAREN DEIALDIA

#### 1. artikulua. Xedea eta helburua

1. Deialdiaren xedea da 2025eko San Prudentzioren eta Estibalizko Andra Mariaren omenezko Arabako jaiak iragartzeko kartelaren diseinua aukeratzea. Kartela nahi diren koloreak eta teknikak erabiliz diseina daiteke.

2. Helburua da artisten sorkuntza eta parte hartzea sustatzea, bereziki gazteena, eta jai horiei ahalik eta zabalkunde handiena emango dien diseinua saritzea.

3. Kategoría orokorra eta Gazte kategoría ezartzen dira.

4. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuak onetsi zituen eta ALHAOren 51. zenbakian argitaratu ziren, 2022ko maiatzaren 4an.

#### 2. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Saria norgehiagoka bidez emango da. Saria emateko, aurkeztutako lanak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, horretarako izendatutako epaimahaiak egindako balioespenaren arabera.

#### 3. artikulua. Aurrekontu egozpena eta zenbatekoa

1. Gastu hori babesten duen aurrekontu partida 70105. G/334700/48000701 "Arabako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa" izenekoa da, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren proiektukoa, eta 3.500,00 euroko zenbatekoa ezartzen da guztira. Sariak ematea eteteko baldintza honen pean jartzen da: sariak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

2. Hona hemen emango diren sariak:

a) 350,00 euroko sari bat modalitate orokorreko bost hautagaitza finalistetako bakoitzarentzat, dagokion atxikipena izango duena.

b) 350,00 euroko saria Gazte modalitateko proposamen irabazlearentzat, dagokion atxikipena izango duena.

c) 1.400,00 euroko saria lehiaketako proposamen irabazlearentzat. Kopuru hori bateragarria da 350,00 euroko zuzkidurarekin, bai kategoría orokorrean finalista izateagatik lortutakoarekin, bai Gazte modalitateko proposamen irabazlea izateagatik lortutakoarekin. Horrenbestez, irabazleak 1.750,00 euroko ordainketa bakarria jasoko du, eta dagokion atxikipena izango du.

#### 4. artikulua. Parte hartzaileen betekizunak

1. Kategoria orokorrean, edozein pertsona fisikok hartu ahal izango du parte, nazionalitatea edo bizilekua edozein dela ere.
2. Gazte kategorian, 25 urte beteta ez dituzten pertsonak hartu ahal izango dute parte, baldin eta arteekin edota diseinuarekin lotutako ikasketak egiten ari badira edo egin badituzte. Bi baldintza horiek deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean izan behar dituzte beteta.
3. Saridunek egunean izan behar dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
4. Kultura Ekintza Zerbitzuak ofizios egiaztatuko du pertsonak atal honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela. Egiaztatze horien aurka egiten badute, beraiek aurkeztu behar dituzte egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

#### 5. artikulua. Hautagaien ezaugarriak

1. Dosierraren ezaugarriak, kategoria orokorrerako: deialdiaren III. eranskinaren arabera, 3 eta 5 ilustrazio edo diseinu artean izan beharko ditu, eta horietatik 2 gutxienez kartelak izan beharko dira. Kartelak lehendik egindako lanak edo simulazioak izan daitezke. Dokumentu honen gehieneko tamaina 10 MB-koa izango da. Helburua da baloratzea hautagaiaren artelanaren kalitatea eta ilustrazio edo diseinu lanaren estiloa eta gaitasunak.

2. Kartelaren ezaugarriak, Gazte kategoriarako eta kategoria orokorreko bost finalistek aurkeztu behar duten lanerako: kartelaren proposamen bakarra aurkeztuko da PDF formatuan (72 dpi/RGB). Neurriak: 480 x 680 mm (bertikala). Artxi-boaren izenburua izenordearen izena izango da.

Kartelean testu hauek agertu behar dira (euskarazko testua lehentasunezko lekuan agertu behar da):

ARABAKO JAIK San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria Apirilak 28 – maiatzak 1 / 2025

FIESTAS DE ÁLAVA San Prudencio y Nuestra Señora de Estibaliz 28 de abril – 1 de mayo / 2025

Arabako Foru Aldundiaren komunikazio marka azken diseinuan sartu beharko da, eta helbide honetan dago: <https://web.araba.eus/eu/foru-aldundia/erakundea/marka>.

Kartelaren proposamena argitaragabea izan beharko da, aurretik beste ezein lehiaketatan saritu gabea eta hautagaiak egina. Berariaz debekatuta dago adimen artifiziala (IA) erabiltzea.

3. Bi kategorietan, lanak sinadurarik gabe agertu beharko dira. Erabilitako edozein sinadura edo marka digitalen bidez hautagaia identifika badaiteke, hautagaia zuzenean lehiaketatik kanpo utziko da.

#### 6. artikulua. Hautagaitzak aurkeztea

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak bide hauetakoren bat erabili beharko dute hautagaitza aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak: Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen inprimakia bete behar da. Horretarako, aurretik, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/convocatoria-cartel-san-prudencio>.

b) Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behe), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan.

2. Proposamenak honela aurkeztu behar dira:

a) Gazte kategorian:

II. eranskina bete beharko da, eta 5. artikuluan ezarritako ezaugarrien arabera kartela aurkeztu beharko da.

Gainera, arteekin eta/edo diseinuarekin lotutako ikasketa ofizialak egiten ari direla egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira, edo ikasketa horiek amaitu direla egiaztatzen duen titulua.

b) Kategoria orokorrean:

II. eta III. eranskinak bete beharko dira (dosiera, 5. artikuluan ezarritako ezaugarrien arabera).

3. Bi kategorietan, aurrez aurre aurkeztea erabakitzen bada, euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea) erantsi behar dira lanak.

4. Artikulu honetako aurreko apartatueta adierazitakoarekin bat ez datozen bidalketak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

5. Epaimahaiari lanak izenik gabe emango zaizkio, besterik ez. Egileen datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ez du haietara sarbiderik izango.

#### 7. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2025eko otsailaren 3an amaituko da, 23:59an.

#### 8. artikulua. Beste sari batzuekiko bateraezintasuna

Ezin dira lehiaketa honetara aurkeztu lehendik beste lehiaketa edo sariketa batean saria jaso duten kartelak.

#### 9. artikulua. Hautagaitzak balioesteko irizpideak

1. Sariak ematean, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira, aurkeztutako eskabideak alderatuz.

2. Saria emateko, obra guztiak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

Proposamenen sormena eta originaltasuna, diseinuari eta estetikari dagokienez	12 puntu
Sinpletasun grafikoaren eta kalitate tekniko eta artistikoaren arteko konposizio oreka	10 puntu
Ideen sintesiaren bidez komunikatzeko gaitasuna	10 puntu
Testua argi eta irakurtzeko moduan txertatzea, kartelaren tamainaren arabera neurriekin	8 puntu
Deialdia egin duen erakundea nola txertatu den eta erraz identifikatzen den (logotipoa)	5 puntu
Gizarte aniztasuna eta, bereziki, emakumeena modu abstraktuan edo literalean irudikatzea	5 puntu

#### 10. artikulua. Epaimahaia

1. Gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera hautatu den epaimahai kalifikatzaileak deialdira aurkeztutako lanak, izengabeak, aztertuko ditu, eta deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera balioetsiko ditu.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.3 artikulua betez (indarrean dagoen idazketan), sariak emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, eta eduki beharreko trebakuntza, gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute kideek. Lege horren arabera, lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza duenean, eta gainerako kasuetan, berriz, bi sexuak ordezkaturik daudenean.

3. Epaimahaia osatzen duten pertsonak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio arrazoien eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdian ezarritako irizpideen arabera eskabideak balioestea ez den bestelako helburu baterako, eta txostena egin ondoren deialdiko dokumentazio guztia prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela. Izendapen horiek Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errekusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

4. Epaimahaiaren epaia apelaezina da, epaimahaikideen gehiengo soilaz emango da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

5. Epaimahaiak erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.

6. Epaimahaiak erabakia hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar egunen buruan eta hiru hilabete igaro arte, parte hartzaileek Kultura Ekintza Zerbitzuan jaso ahal izango dituzte aurrez aurre aurkeztutako euskarri informatikoak. Epe hori igarotakoan, euskarriak suntsitu egingo dira.

#### **11. artikulua. Prozeduraren izapideak eta ebazpena**

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak du deialdian sortzen edo planteatzen diren gai guztiak ebazteko eskumen eskusiboa.

3. Gazte kategorian, epaimahaiak aurkeztu diren proposamenen artetik kartel irabazlea izendatuko du 9. artikuluan adierazitako balioespen irizpideak aplikatu ondoren eta 12. artikuluan adierazitako epean.

4. Kategoria orokorrean, 5 hautagaitza finalisten hautaketa honako fase hauen arabera egingo da:

a) Epaimahai profesional batek bost finalista hautatuko ditu aurkeztutako hautagaitzen artetik, eta beste hiru erreserbarako, lehentasun hurrenkeran adierazita. Bost hautagai finalistek kartel proposamen bat egin beharko dute 12. artikuluan adierazitako epean.

b) 350,00 euroko zuzkidura emango zaie finalista izan direnei, deialdi honetan ezarritako epean kartelaren proposamena aurkezten badute. Kartelaren proposamena epe barruan aurkezten ez bada, deialdi honetatik deskalifikatu egingo da berehala, eta aipatutako zuzkidura ekonomikoa kobratzeko eskubidea galduko da. Kasu horretan, hurrengo hautagaia izango da finalista, ezarritako lehentasun ordenari jarraituta.

5. Epaimahaiaren erabakia.

Epaimahaiak 9. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko ditu kategoria orokorreko finalista izan direnen kartel proposamenak eta Gazte kategoriako irabazlearen kartel proposamena, eta proposamen irabazle bakarria izendatuko du.

Epaimahaiak txosten bat egingo du bere erabakia jasotzeko, eta organo izapidegileari igorriko dio. Organo horrek behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, epaimahaiaren balioespenaren arabera, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

6. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagokion ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

7. Saria emateko ebazpena irabazleari eta finalistei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikulua xedatutakoari jarraikiz.

**12. artikulua. Deialdiko faseen epeak**

- Kultura eta Kirol Sailaren epea, kategoria orokorrean hautatutako bost hautagaitzei finalista geratu direla jakinarazteko eta Gazte kategorian aukeratutako hautagaiari irabazlea dela jakinarazteko: 2025eko otsailaren 14a.
- Kategoria orokorreko bost finalistek kartelaren proposamena bidaltzeko azken eguna: 2025eko martxoaren 12a, 23:59an.
- Kultura eta Kirol Sailaren epea, lehiaketaren irabazle izateko proposatu den pertsonari horren berri emateko: 2025eko martxoaren 19a.
- Kartel irabazlearen azken artelana bidaltzeko azken eguna: 2025eko martxoaren 26a, 23:59an.

**13. artikulua. Saria ematetik eratorritako betebeharrak eta konpromisoak**

Deialdi honen irabazleak ezarritako moduan eta epean aurkeztu beharko du kartelaren azken artelana, eta, aurkeztu ezean, irabazle izaera eta dagokion diru zuzkidura galduko ditu, eta finalista izatera igaroko da. Egoera horretan, irabazle izaera hurrengo pertsonari esleituko zaio, ezarritako ordenari jarraituta, eta horrek, era berean, deskribatutako betebeharrak bete beharko ditu.

Kartel irabazlearen azken artelana inprentan erreproduzitzeko aurkeztu beharko da (bektoriala edo 300 dpi/CMYK), 12. artikuluan ezarritako epeetan.

**14. artikulua. Ustiapen eskubideak**

Irabazleak kartela erabiltzeko eskubideak lagako dizkio Arabako Foru Aldundiari, bai eta kartelaren zatiak edo motiboak erabiltzekoak ere. Arabako Foru Aldundiak saritutako lana ustiatzeko edozein modu erabili ahal izango du, hala nola kopiatzea, banatzea, zabaltzea edo aldatzea, bai eta sare digitalen bidez igortzea, transmititzea eta eskura jartzea ere, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluan adierazitako epean. Era berean, Arabako Foru Aldundiak erreproduzitutako kartela edozein euskarritan ustiatu ahal izango du merkaturatzeko, zuzenean edo hirugarren bati ustiatzeko baimena emanaz.

**15. artikulua. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian, [www.araba.eus](http://www.araba.eus), jarriko da eta [www.kulturaraba.eus](http://www.kulturaraba.eus) orrian.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Kartelaren lehiaketa Arabako Jaiak</b> <b>San Prudentzio eta Estibalzko Andre Maria</b> <b>Concurso de cartel Fiestas de Álava</b> <b>San Prudencio y Nuestra Señora de Estibaliz</b></p> <p><b>2025</b></p> <p><b>II. ERANSKINA • ANEXO II</b></p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

\* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

Ezizena ■ Seudónimo \*

## DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES

Izena ■ Nombre *		
Lehen deitura ■ Primer apellido *		Bigarren deitura ■ Segundo apellido
Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo Aukeratzea / Seleccionar		Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *
Sexua ■ Sexo Aukeratzea / Seleccionar	Adina ■ Edad *	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *
Posta helbidea ■ Dirección postal *		
Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *		Beste telefono bat ■ Otro teléfono

Gaszte modalitatean izena emanez gero, arteekin eta/edo diseinuarekin lotutako ikasketa ofizialak egiten ari direla egiaztatzeko agiriari aurkeztu behar dituzte, edo ikasketa horiek amaitu dituztela egiaztatzeko titulua.

En caso de inscribirse en la modalidad Gaszte, deberán presentar documentación acreditativa de estar cursando estudios oficiales relacionados con las artes y/o el diseño, o la titulación que justifique haber finalizado dichos estudios.

KULTURA ZUZENDARITZAK  
OFIZIOZ EGIAZTATZEA  
(Adierazi dagokiona)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunear:

- Eskatzailearen nortasun datuak
- Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa

Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu?

 AURKA NAGO

Aurka eginez gero, deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

COMPROBACIÓN DE OFICIO  
POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:  
(Marcar lo que corresponda)

De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- Datos de identidad de la persona solicitante.
- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

 ME OPONGO

En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos de cumplir los requisitos establecidos en las bases de la convocatoria.

Egiaztearen helburua: Egiaztatu behar direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Egiaztearen kodea: Código de verificación  
8EUM-duvQ-Mkvr-N6CH

RE: 24/356

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	<b>Kartelaren lehiaketa Arabako Jaiak. San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria</b> Concurso de cartel Fiestas de Álava. San Prudentio y Nuestra Señora de Estibaliz	<b>2025</b>
---	---	-------------

**ZINPEKO DEKLARAZIOA:**

- Honen bidez, aurkeztutako obraren originaltasuna eta egiletasuna adierazten dut eta adimen artifiziala (IA) erabili ez izana sortze-prozesuko ezein unetan.
- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut.
- Eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditudala adierazten dut.

**DECLARACIÓN JURADA:**

- Por la presente, declaro la originalidad y autoría de la obra presentada y no haber utilizado la inteligencia artificial (IA) en ningún momento del proceso creativo.
- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.
- Declaro que son ciertos los datos que figuran en esta solicitud y que reúno las condiciones exigidas en la convocatoria.

Tokia ■ Lugar
Data ■ Fecha

**DATU PERTSONALEN BABESERAKO OHARRA:**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizgizuzen datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "Kultura sustapena" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kultura jarduerara sustatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, lege ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOK aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoptza Elektronikoz baliatu ahalko zara [www.araba.eus](http://www.araba.eus) atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

**AVISO DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES:**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a tratarse por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "Promoción cultural" para la finalidad de promocionar la actividad cultural en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en [www.araba.eus](http://www.araba.eus), o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información: <https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>







Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus

---

## **Kartelaren lehiaketa Arabako Jaiak**

**San Prudentzio eta  
Estibalizko Andre Maria**

## **Concurso de cartel Fiestas de Álava**

**San Prudencio y  
Nuestra Señora de Estíbaliz**

**2025**

---

## **Dosier**

**III. ERANSKINA • ANEXO III**

**Ezizena ■ Seudónimo**

Insertar PNG-JPG-PDF

1

Insertar PNG-JPG-PDF

2

Insertar PNG-JPG-PDF

3

Insertar PNG-JPG-PDF

4

Insertar PNG-JPG-PDF